

ISAD(G) deskribapen proposamena, funts mailan

1. Identitate aipamenaren atala

1.1. Erreferentzia kodea:

1.2. Izenburua:

Bilboko Merkataritza Eskola zaharraren funtsa

1.3. Datak:

1884-1972

1.4. Deskribapen maila:

Funtsa

1.5. Luzera eta euskarria:

2. Inguruabarren atala

2.1. Egilea/ekoizlea:

Indarrean egon zen aldian hainbat alditan aldatu zituen antolamendua, mendekotasuna eta izena:

- * Bilboko Kontsulatuaren Merkataritza Eskola (1818-1850)
- * Bilboko Merkataritzako Oinarrizko Eskola (1851-1888)
- * Bilboko Merkataritzako Goi Eskola (1888-1920)
- * Goi mailako Merkataritza Ikasketen Eskola (1920-1970)
- * Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola (1971-1972)

2.2. Erakundearen historia:

Bilbo izan zen merkataritza diziplinak irakasteko eskola bat sortu zuen lehen hiria Espainian, eta munduko lehenetako bat. Bilboko Eskola baino lehen, egiaztatu da San Petersburgokoa, Hanburgokoa eta Triestekoa martxan zirela XVIII. mendearen erdialdeaz geroztik, eta Moskukoa, Odesakoa, Danzigekoa eta Estrasburgokoa, 1804az, 1810az, 1814az eta 1817az geroztik, hurrenez hurren.

Merkataritza irakaskuntzaren beharra zegoela ikusi zen XVII. eta XVIII. mendeetan, eta 1800ean Bilboko Kontsulatuak ikasketa horiek hiriko merkatariei zuzenduta bultzatzea erabaki zuen. Hori lortzeko egindako lehen eskaera atzera bota zuten, eta Napoleonen inbasioko urte nahasiak igaro eta herrialdea indarberritu ondoren, araudi baten proiektua idatzi eta 1818ko uztailaren 9ko Errege Xedapenaren bidez onartu zen. Lau katedra sortu ziren: matematika, frantsesa, ingelesa eta marrazketa; lehenengoan sartu ziren kontabilitate ikasketak.

Eskolaren lehen etapa Kontsulatuak udaletxeko goiko solairuetan zituen lokaletan hasi zen eta 1818ko azaroaren 18an hasi zen eskolak ematen. Lehen

zuzendaria Alberto Lista y Aragón izan zen, elizgizon, matematikari eta olerkari ospetsua. Matematikako katedra lortu zuen eta 1818ko abenduaren 28an izendatu zuten. Eskola 1819ko martxoaren 1ean inauguratu zen ofizialki, Espainiako errege Fernando VII.a zela eta kontsulatuko priorea Manuel María de Aldecoa jauna zela.

Bigarren etaparen abiapuntua izan zen Elisabet II.aren 1850eko irailaren 8ko Errege Dekretuak Espainian merkataritza ikasketak modu ofizialean antolatzea. Bilboko Merkataritzako Oinarrizko Eskolak aitorpen ofiziala jaso zuen 1851eko martxoaren 24ko Errege Aginduekin. Bigarren Hezkuntzako Institutuaren egoitza berean eman ziren eskolak aurrerakoan, Nautikako Eskola zen eraikin berean. Merkataritzako perituaren eta merkataritzako irakaslearen tituluak irakasten ziren.

Hirugarren etapan, Bilboko Merkataritzako Goi Eskola bihurtu zen. Ikastetxearen arrakasta ikusita, 1888ko ekainaren 14an, Bizkaiko Aldundiko presidente Pablo Alzolak mozio bat aurkeztu zuen, aipatu aldaketa proposatuta, eta sor litekeen gastu hazkundera Aldundiaren funtsetatik ordaintzeko konpromisoa hartu zuen. Proposamena onartu, eta 1888ko irailaren 18ko Dekretuaren bidez, Bilboko Oinarrizko Eskola goi eskola bihurtu zen, eta merkataritzako perituaren eta merkataritzako irakaslearen tituluak eskaintzen hasi zen.

Bilboko eskola Goi mailako Merkataritza Ikasketen eskola bihurtuta –1920ko abuztuaren 6ko Dekretuaren bidez– abiatzen da laugarren etapa. Bertan ezarri ziren merkataritzako intendentziako (lizentziaturaren parekoa) eta aseguruaren aktuariotzako graduak. 1927an inauguratu zen Elkano kaleko egungo eraikina, Bizkaiko diputazioak oso-osorik ordainduta.

Bosgarren etapa 1953ko uztailaren 17ko Legearekin hasi zen, unibertsitate graduak ikasketak politika, ekonomia eta merkataritza zientzien fakultateetan kokatu baitzituen. Bilboko Eskolan merkataritzako peritu eta irakasle izateko graduak besterik ez ziren irakasten, eta Valladolideko Unibertsitatearen mende geratu zen. 1955eko urrian jarri zen martxan Bilbon, eskolaren lokaletan, Politika, Ekonomia eta Merkataritza Zientzien Fakultatea, Valladolideko Unibertsitatearen mende hori ere. Bertan irakasten ziren merkataritzako intendentziako graduak ikasketak, 1953ko uztailaren 23ko Dekretua betez. Fakultateak 1964ko ekainera arte eman zuen irakaskuntza eskolaren aretoetan, orduantxe lekualdatu baitzen Sarrikoko eraikinera.

Eskolaren historiako seigarren etapa Hezkuntzari eta Hezkuntza Erreformaren Finantzaketari buruzko 1970eko abuztuaren 4ko Lege Orokorrek definitu zuen, merkataritzako ikasketak berriro ere egituratu baitzituen. Merkataritzako irakasleen ikasketetako gradua eskaintzen zuten merkataritzako eskolak, Bilbokoa horien artean egonik, Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola bihurtu ziren. Ikasketa horien lehendabiziko plan esperimentalak, enpresa zientzien diplomatura, 1971-1972 ikasturtean hasi eta 1998-1999 ikasturtera arte irakatsi izan da, bere hiru espezialitateetan: kontabilitatea, merkataritza eta administrazioa.

Zazpigarrena, 1972ko maiatzean hasi zen, Eskola Bilboko Unibertsitatearen mende egotera igarotzeko agindu zuen dekretuaren argitalpenarekin.

2.3. Historia artxibistikoa:

Bilboko merkataritzako ikasketen agiri funts zaharraren gordelekua aldatu egin da denboran zehar. Elkano kaleko eraikineko gaur egungo gordelekuan egon aurretik, Bizkaiko Institutu zaharrean egon zen, egungo Unamuno plazan. Ezezaguna da non zen gordeta aipatu dokumentazioa 1884a baino lehen, baina aipatu behar da II. karlistaldian bonba erasoak izan zituela Bizkaiko Institutuaren eraikinak, eta horiek Merkataritza Eskolaren agiriei erasan ahal izan zietela.

2.4. Eskuratze edo eskualdatze iturria:

Funts itxia

3. Eduki eta egitura atala

3.1. Helmena eta edukia:

Bilboko Merkataritza Eskola zaharreko dokumentu funtsak barnean hartzen du sortu zenetik Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola bihurtu zeneraino gorde den dokumentazio guztia. Eskola hori Bilboko Unibertsitatearen (gerora, UPV/EHU) mende geratu zen 1972an.

Edukiaren deskribapen orokorra. Gaur-gaurkoz, hauek bakarrik identifikatu dira:

- Ikasleen espedienteak (1884 ingurutik -1972ra). Agiri kopuru handienekoa da.
- Azterketen aktak (1902 ingurutik - 1972ra).
- Tituluak.
- Ikasle fitxak, alfabetikoki ordenatuta, ikasleen espediente akademikoaren zenbakia ere barne 1930 ingurutik aurrerakoetan.

Bestelako agiriak ere egon litezke, esaterako: Kudeaketa akademikoa (dokumentazio osatu gabea, askotariko espedienteetan: espedienteen lekualdaketak, matrikulak, bekak, ziurtagiriak, etab.); langile kudeaketa; nominak; diru sarreren eta gastuen zerrenda; ziurtagiri akademikoen liburua; jatorrizko matrikula eta azterketa liburuak; bilkuren akta liburuak; langileek lanpostuaren jabetza hartzearen akten liburuak; matrikula tasen erregistroen liburuak; agirien irteera erregistroen liburuak; kontuen liburu nagusia...

3.2. Balorazioari, aukeraketari eta deuseztatzeari buruzko informazioa:

Ez dira ebaluatu agiri serieak.

3.3. Sarrera berriak:

Funts itxia da.

3.4. Antolamendu sistema:

Ez dago sailkapen koadrorik.

4. Sarbide eta erabilera baldintzen atala

4.1. Sarrera baldintzak:

Agiri gehienetarako sarbidea librea da, aurretiaz kontsulta eskabidea eginda UPV/EHUko Artxibo Nagusiari. 1968tik aurrerako agirien sarbidea mugatuta dago.

4.2. Erreprodukzio baldintzak:

Ikasketa eta ikerketa helburuetarako bakarrik dago baimenduta, aurretiaz eskabidea eginda.

4.3. Materialaren hizkuntza:

Gaztelania

4.4. Ezaugarri fisikoak eta baldintza teknikoak:

Oro har, kontserbazio egoera ona da.

4.5. Deskribapen tresnak

ISAD(G) fitxa, funts mailan.

7. Deskribapen kontrolerako atala

7.1. Artxibozainaren oharra:

Miguel Ángel Santos Cresporen deskribapena.

7.2. Arauak:

ISAD (G): Norma internacional general de descripción archivística. 2. ed. Madril: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa (Kulturako Estatu Idazkaritza, 2000).

ISAAR (CPF): Norma internacional sobre los registros de autoridad de archivos relativos a instituciones, personas y familias. 2. ed. Madril: Kultura Ministerioa, 2004.

Manual de descripción multinivel. [Salamanca]: Gaztela eta Leongo Junta. Hezkuntza eta Kultura Saila, 2000.

7.3. Deskribapen data:

2018ko martxoa.